

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**HABEren zuzendariaren 2020ko abenduaren 23ko Ebazpena, 2020ko euskaltegietako ikasleentzako bigarren deialdiko mintzamen-proben emaitzak eta 2020ko bigarren deialdi irekiko entzumen- eta mintzamen-proben emaitzak argitaratu ondorengo erreklamazio-epea luzatuz.**

HABEren Azterketa-batzordeak 2020ko abenduaren 18an argitaratu zituen euskaltegietako ikasleentzako bigarren deialdiko mintzamen-proben emaitzak eta 2020ko bigarren deialdi irekiko entzumen- eta mintzamen-proben emaitzak.

Emaitzak horiek jendarteratzean HABEren sistema informatikoan akatsak izan direla kontuan hartu, eta ondorioz, zenbait azterketarik bere emaitzetara eta egin azterketaren lekukoetara iristeko zailtasun jakinak izan dituztela eta,

## **EBAZTEN DU:**

HABEren bi deialdiotako prozedura, puntuazioen konputua, edo emaitzetako errakuntzen aurka erreklamazioak egiteko epea luzatzea 2020ko abenduaren 23tik abenduaren 30era, biak barne.

Erreklamazioak, HABEren Donostiako Erregistro Nagusira zuzenduko dira, honako helbide honetara: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6.a. 20018 Donostia.

Donostia, 2020ko abenduaren 23an

**HABE**

Helduen  
Alfabetatze eta  
Berreuskalduntze  
Erakundea

Jokin Azkue Arrastoa  
HABEren zuzendari nagusia